


**Erdi Mailako  
Lanbide  
Heziketa**

**Kimika**

# Kimika instalazioko teknikaria



**Nafarroako  
Gobernua**  **Gobierno  
de Navarra**



Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro  
EGFK zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

# Kimika instalazioko teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

### Kimika instalazioko oinarrizko eragiketak

- Prozesu kimikoko eragiketak egitea.
- Kimika instalazioko makinak, ekipamenduak eta instalazioak prestatu eta egokitzea.
- Kimika instalazioko kontrol lokala egitea.
- Fabrikazio zuzenari, segurtasunari eta ingurumenari buruzko araei loturik aritzea.

### Energia arloko eta zerbitzu osagarrietako instalazioetako eragiketak

- Energia arloko eta zerbitzu osagarrietako makinak, ekipamenduak eta instalazioak prestatzea.
- Energia ekoitzi eta banatzeko eta zerbitzu osagarrietako makinak, ekipamenduak eta instalazioak erabiltzea.
- Energia arloko eta zerbitzu osagarrietako instalazioetan kontrol lokala egitea.
- Fabrikazio zuzenari, segurtasunari eta ingurumenari buruzko araei loturik aritzea.

### KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek kimika sektoreko enpresetan lan egingen du, ekoizpenean, jasotze eta bidaltze lanetan, egokitzapenean, hornidura logistikoan edo energiaren eta zerbitzu osagarrien arloetan, hala oinarrizko kimikaren azpisektorean nola eraldaketa-kimikaren azpisektorean.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Tratamendu kimikoko instalazioetako operadore nagusia.
- Hausteko, birrintzeko eta substantzia kimikoak nahasteko makinetako operadorea.
- Tratamendu kimiko termikoko instalazioetako operadorea.
- Substantzia kimikoak iragazteko eta bereizteko ekipamenduetako operadorea.
- Destilazioko eta erreakzio kimikoetako ekipamenduetako operadorea.
- Petrolioaren eta gas naturalaren findegietako operadorea.
- Produktu kimikoak fabrikatzeko makinetako operadoreen arduraduna.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

# Kimika

- Energia ekoizteko instalazioetako eta kimika lantegietako eragiketa osagarrien instalazioetako operadorea.
- Iragazteko, bereizteko eta ura arazteko ekipamenduetako operadorea.
- Munizioa eta lehergailuak fabrikatzeko makinetako operadorea.
- Argazkilaritza eta zinemagintzako produktuak fabrikatzeko makinetako operadorea.
- Produktu kimikoen tratamendurako instalazioetako beste operadore batzuk.
- Produktu kimikoak fabrikatzeko makinetako beste operadore batzuk.
- Ongarriak fabrikatzeko ekipamenduetako operadoreak.
- Ura tratatzeko instalazioetako operadoreak.
- Baterako sorkuntzako instalazioetako laguntzaileak.

## ZIKLOAREN MODULUAK

---

- Parametro kimikoak.
- Kimika instalazioko eragiketa unitarioak.
- Prozesu kimikoan energia sortzeko eta transferitzeko eragiketak.
- Materialen garraioa industria kimikoan.
- Enpresa eta ekimena.
- Kimika instalazioko erreakzio eragiketak.
- Industriako prozesu kimikoen kontrola.
- Ur tratamendua.
- Mantentze elektromekanikoaren printzipioak.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.